

Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Ordizian, **2013ko irailaren 26an**, UDALBATZA elkartu da UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN **OHIKO** BILERA egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Edurne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaria Ezeiza jauna	EAJ taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jn.


KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi jn.

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra and.

BERTARATUAK



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2013ko uztailak 18ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.
.....4.orr.
- 2.- Pobrezia eta bazterketa egoera jasateko arriskua dueten adingabekoak dituzten familientzako arreta eta laguntza hobetzeko mozioa, PSE-EE(PSOE)ek aurkeztutakoa.
.....4.orr.
- 3.- Kreditu abala luzatzeko 2013ko,873 zenbakidun dekretua berrestea.
.....4.orr.
- 4.- Kreditu transferentzien onarpena
.....4.orr.
- 5.- Urdaneta kalea 8ko lursail bat Udalari lagapenaren onarpena.
.....4.orr.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK


GALDE-ESKEAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19.10ak.

AMAIERA ORDUA: 19:45ak.





Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2013 ko uztailaren 18ko deialdian egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2013ko uztailaren 18an ohiko deialdian egindako bileraren akta-zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate in

Adierazi du aktarekin ados daudela baina ñabardura edo zuzenketa batzuk egin behar direla testuaren inguruan (maiuskularen bat gaizki, eta abar) eta pasatuko dituela zuzenketa.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

2.- Pobrezia eta bazterketa arrisku-egoeran dauden adingabeak dituzten familientzako arreta eta laguntza hobetzeko mozioa

Proposamena

Ordiziako Udaleko talde sozialistaren bozeramaile Iñaki Dubreuil Churrucak honako MOZIOA aurkeztu du osoko bilkurarako gaiak aztertzen dituen Batzordean lantzeko eta, ondoren, OSOKO BILKURARA eramateko.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

JUSTIFIKAZIOA

2010 urtean, haurren nazioarteko Egunarekin batera, UNICEFek haurren pobrezia arrisku ahulena zuen erkidegoen artean sartu zuen Euskadi. Hala ere, urte hartan, Euskadik haurren pobrezia-egoeraren arrisku tasa %9,3koa zuen. (UNICEFen txostena “**Haurrak Espainian 2010-2011**”)

2012 urteko Gipuzkoako Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren Inkestan, Foru Aldundiak eskatuta eta Egia-Kareaga Fundazioaren SiiS- Dokumentazio eta Azterketa Zertzoak egindakoan, esaten zen familiei ematen zitzaien laguntza Gipuzkoako gizarte politikaren alderdi ahul bat zela, eta haur pobreziaren arazoa hazten ari dela ondorioztatzen zen, hau da, haurrak zituzten familietan, eta familia gazteetan, ematzipazio ezegonkorren kasuetan.


Urte horretan bertan, Enplegu eta Gizarte Arazoen Sailak egindako **Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestak** jasotzen zuen epe motzean ohiko gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez zuten familien kopurua bikoiztu egin zuela krisiak: 124.000 eta 2008an, berriz, 66.000. Orain, 2013an, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak egindako **haur pobreziaren egoerari buruzko azterlan monografikoari** esker datu kezagarri gehiago ezagutzen dira, besteak beste haur pobrezia %14 izatetik %21ekoa izatera pasa dela, eta familia etorkinen artean “benetako pobrezia” %41eko tasara iritsi dela, eta bertakoena %4,6koa dela.

Euskadin lehenengo aldiz Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak egindako, Familiaren Euskal Kontseiluak aztertutako eta joan den uztailan aurkeztutako **Haurren Pobreziaren Egoerari buruzko azterlan monografiko honek** azpimarratzen zuen 14 urtez azpiko herritarren bizi-baldintzak okertu egin direla krisi ekonomikoaren ondorioz. 14 urtetik beherako haurren benetako pobrezia egoerak gora egin du %7,3tik %9,5era 2008 eta 2012 urteetan, eta 14 urtetik beherako Euskadiko adingabeen %11,8 pobrezia arriskuan daude eta egoera berean dauden EAEko herritarren %21a dira adin tarte honetakoak. Beraz, 14 urtez azpiko 33.000 adingabe baino gehiago bizi da mantentze-pobrezia arriskuan, hau da, denboran zehar oinarritukoena izateko aukerarik eduki gabe.

Kalte handiena jasan duten arrisku taldeei dagokienez, datuek adierazten dute egoera txarrean dauden haurrak etorkinen familiakoak direla, lehen aipatu dugun moduan, eta pobrezia tasa erreal %41ekoa dela etorkinen artean eta %4,6 bertakoen artean (bertakoen artean arrisku tasa ez da gehiegi aldatu krisian zehar eta 90 hamarkadako erdialdean baino pixka bat baxuagoa da tasa). Kaltetutakoen artean aipatu ditzakegu bereziki guraso bakarreko familiak (%32) eta familia ugariak (%25).

Azterlanaren egileentzako pobrezia umeen bizi-baldintzetan uzten duen aztarna eztabaida ezina da. Txosten honen arabera, Euskadiko pobreziaren isla haurrengana eta gazteengana zabaltzen ari da.

Beste alde batetik, Arartekoaren iritziz (honek ere duela hilabete batzuk (2013ko urtarrila) krisiak haurrengana duen eraginari buruzko azterlana egin zuen), gabezia materialek haurrak desabantailan eta egoera ahulean uzten dituzte eta horrek etorkizunean eragina izan dezake beraien hezkuntza, gizarte eta lan garapenean. Horrekin batera, ohartarazten zuen Euskadin ume batzuk gose izan zitezkeela. Datuen arabera, euskal herritarren %7,7 elikadura arazo larriak dituzten etxeetan bizi dira.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

HORREGATIK GUZTIARENGATIK

KONTUAN HARTURIK

1. Azkeneko urteotan egindako azterlan, inkesta eta txosten desberdinek egiaztatzen dute pobrezia umeen bizi-baldintzetan uzten duen aztarna eztaba daezina dela.
2. Inkesta eta azterlan guztietan egiaztatzen ari direla adinen inguruko aldeak, eta pobrezia arriskua adinekoengandik haurrengana eta gazteengana hedatzen ari dela ondorioztatu dute.
3. Gure udalerrian familia eta pertsona etorkinen portzentaia handia da.
4. Ez dela ezagutzen zientifikoki Ordizian haurren pobrezia egoera zein den.

ETA AINTZAT HARTUZ

Udal markoan gaur egungo ahaleginei balio handiagoa eman dakiekeela, eta era hobean aurre egin hain kezkarria den arazo honi,

OSOKO BILKURA HONEK HAUXE ERABAKI DU:

1. Udaleko Ongizate Sailari eskatzea Ordiziako haurren pobrezia inguruan familien egoerari buruzko informazioa, datuak eta larritasuna jasotzen dituen azterlan-txostena egiteko.
2. Ongizateko Udal Aholku Batzordeari eskatzea aipatutako informazioa aztertzeke eta beharrezkoak diren neurriak proposatzeko, era ordenatuan, bideratuan, globalean eta premiazkoan gaur egungo egoerari aurre egiteko eta Ordiziako haurren pobrezia hazkundera saihesteko.


Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jn.:

Adierazi du gai honi buruzko txostenak irakurri ondoren, besteak beste Unicef, Espainiako Estadia, Eusko Jaurlaritzak, eta Foru Aldundiak eginikoak alarma guztiak piztu direla, gaur egungo haur pobrezia datuak oso esanguratsuak direla, eta badaudela beste txosten batzuk, adibidez Intermon-Oxfarm erakundeak egindakoak, non esaten duen haurren pobrezia nabarmen igo dela, batez ere egiten ari diren austeritate politikak eraginda. Mozio honen bitartez Ordiziako errealitatea ezagutu nahi da, ea zein egoeratan gauden, sailak ez ditu datuak, nahiz eta jakin 2007. urtean janari bankutik 30 familiari ematen zitzaizela laguntza, eta gaur egun laguntza 97 familietara pasatu dela, bestalde aipatu du oraindik RGIko datuak ikusteko dagoen zailtasuna, Lanbiderekin koordinazio arazoa oraindik soluzionatu ez delako; beraz bere ustez garbi dago arazoaren tamaina ezagutu behar dela, eta horretarako mozioan eskatzen da Udal Teknikoek haurren pobrezia inguruan familien egoerari



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

buruzko informazioa, datuak eta larritasuna jasotzen dituen azterlan-txostena egin dezatela, Ongizateko Udal Aholku Batzordeak egiten den txostena aztertu eta beharrezkoak diren neurriak proposatzeko.

Maiza And.:

Adierazi du Dubreuil jaunak aipaturiko estatu mailako datuak ez dituela ezagutzen, baina bai ezagutzen dituela Eusko Jaurlaritzak "Ikuspegi" elkartearen bitartez 4 urtean behin egiten duen azterketa, eta baita Gipuzkoako Foru Aldundiak gai honi buruz egin berri duen inkesta, eta biek kointziditzen dutela txirotasuna adin txikikoen artean 2004. Urtetik aurrera igo egin dela; azpimarratu du joera aldatu dela, eta 2000. Urtera arte 65 urtetik gorako adin tramoan bazen ere, pobrezia muga altuena zuen kolektiboa, urte horretatik aurrera adin tramo horretan txirotasun portzentaia jeitsi egin dela 15 puntuz, eta aldiz bizi dugun krisi ekonomikoak eraginda lan egiteko 25-34 adin tramoan eta 0-14 urteko adin tramoan txirotasuna igo egin dela. Jarraitu du esanez denok garela konziente gaiaren larritasunaz eta gordintasunaz, eta horregatik bere taldeak mozioaren alde bozkatuko duela. Bukatu du esanez departamentuak dauzkan erremintak erabiliko dituela, hain zuzen ere Lanbide, Caritas, ikastetxe, pediatriak, janarien bankuko datuak, eta abar, gai honi buruz dagoen informazio guztia jaso ahal izateko.

Santamaria jn.:

Adierazi du bere taldeak alde bozkatuko duela, baina eskatzen du mozioaren 1 eta 2 erabakien artean, hau da bigarren puntura pasatu aurretik, teknikoek ere aukera izatea neurriak proposatzeko beti ere tekniko ikuspuntutik, eta hori mozioan jasotzea.

Dubreuil jn.

Adierazi du teknikoek ere Ongizateko Udal Aholku Batzordean parte hartzen dutela, eta horregatik ez diola arazorik ikusten.

Alkate jn.

Adierazi du mozia bozkatuko dela Santamaria jaunak egindako aportazioarekin.

Bozketa


Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena honela berridatzita geratu da:



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Ordiziako Udaleko talde sozialistaren bozeramaile Iñaki Dubreuil Churrucak honako MOZIOA aurkeztu du osoko bilkurarako gaiak aztertzen dituen Batzordean lantzeko eta, ondoren, OSOKO BILKURARA eramateko.

JUSTIFIKAZIOA

2010 urtean, haurren nazioarteko Egunarekin batera, UNICEFek haurren pobrezia arrisku ahulena zuen erkidegoen artean sartu zuen Euskadi. Hala ere, urte hartan, Euskadik haurren pobrezia-egoeraren arrisku tasa %9,3koa zuen. (UNICEFen txostena “**Haurrak Espainian 2010-2011**”)

2012 urteko Gipuzkoako Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren Inkestan, Foru Aldundiak eskatuta eta Egia-Kareaga Fundazioaren SiiS- Dokumentazio eta Azterketa Zertzoak egindakoa, esaten zen familiei ematen zitzaien laguntza Gipuzkoako gizarte politikaren alderdi ahul bat zela, eta haur pobreziaren arazoa hazten ari dela ondorioztatzen zen, hau da, haurrak zituzten familietan, eta familia gazteetan, emazte-pazientzia ezegonkorren kasuetan.


Urte horretan bertan, Enplegu eta Gizarte Arazoen Sailak egindako **Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestak** jasotzen zuen epe motzean ohiko gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez zuten familien kopurua bikoiztu egin zuela krisiak: 124.000 eta 2008an, berriz, 66.000. Orain, 2013an, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak egindako **haur pobreziaren egoerari buruzko azterlan monografikoari** esker datu kezagarri gehiago ezagutzen dira, besteak beste haur pobrezia %14 izatetik %21ekoa izatera pasa dela, eta familia etorkinen artean “benetako pobrezia” %41eko tasara iritsi dela, eta bertakoena %4,6koa dela.

Euskadin lehenengo aldiz Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak egindako, Familiaren Euskal Kontseiluak aztertutako eta joan den uztailan aurkeztutako **Haurren Pobreziaren Egoerari buruzko azterlan monografiko honek** azpimarratzen zuen 14 urtez azpiko herritarren bizi-baldintzak okertu egin direla krisi ekonomikoaren ondorioz. 14 urtetik beherako haurren benetako pobrezia egoerak gora egin du %7,3tik %9,5era 2008 eta 2012 urteetan, eta 14 urtetik beherako Euskadiko adingabeen %11,8 pobrezia arriskuan daude eta egoera berean dauden EAEko herritarren %21a dira adin tarte honetakoak. Beraz, 14 urtez azpiko 33.000 adingabe baino gehiago bizi da mantentze-pobrezia arriskuan, hau da, denboran zehar oinarritukoena izateko aukerarik eduki gabe.

Kalte handiena jasan duten arrisku taldeei dagokienez, datuek adierazten dute egoera txarrean dauden haurrak etorkinen familiakoak direla, lehen aipatu dugun moduan, eta pobrezia tasa erreala %41ekoa dela etorkinen artean eta %4,6 bertakoen artean (bertakoen artean arrisku tasa ez da gehiegi aldatu krisian zehar eta 90 hamarkadako erdialdean baino pixka bat baxuagoa da tasa). Kaltetutakoen artean aipatu ditzakegu bereziki guraso bakarreko familiak (%32) eta familia ugariak (%25).

Azterlanaren egileentzako pobreziak umeen bizi-baldintzetan uzten duen aztarna eztabaida ezina da. Txosten honen arabera, Euskadiko pobreziaren isla haurrengana eta gazteengana zabaltzen ari da.

Beste alde batetik, Arartekoaren iritziz (honek ere duela hilabete batzuk (2013ko urtarrila) krisiak haurrengana duen eraginari buruzko azterlana egin zuen), gabezia materialek haurrak desabantailan eta



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

egoera ahulean uzten dituzte eta horrek etorkizunean eragina izan dezake beraien hezkuntza, gizarte eta lan garapenean. Horrekin batera, ohartarazten zuen Euskadin ume batzuk gose izan zitezkeela. Datuen arabera, euskal herritarren %7,7 elikadura arazo larriak dituzten etxeetan bizi dira.

HORREGATIK GUZTIARENGATIK

KONTUAN HARTURIK

1. Azkeneko urteotan egindako azterlan, inkesta eta txosten desberdinek egiaztatzen dute pobrezia umeen bizi-baldintzetan uzten duen aztarna eztabaida ezina dela.
2. Inkesta eta azterlan guztietan egiaztatzen ari direla adinen inguruko aldeak, eta pobrezia arriskua adinekoengandik haurrengana eta gazteengana hedatzen ari dela ondorioztatu dute.
3. Gure udalerrian familia eta pertsona etorkinen portzentaia handia da.
4. Ez dela ezagutzen zientifikoki Ordizian haurren pobrezia egoera zein den.

ETA AINTZAT HARTUZ

Udal markoan gaur egungo ahaleginei balio handiagoa eman dakiekeela, eta era hobean aurre egin hain kezagarria den arazo honi,

OSOKO BILKURA HONEK HAUXE ERABAKI DU:

1. Udaleko Ongizate Sailari eskatzea Ordiziako haurren pobrezia inguruan familien egoerari buruzko informazioa, datuak eta larritasuna jasotzen dituen azterlan-txostena egiteko.
2. Ongizateko Udal Aholku Batzordeari eta Saileko Teknikariei eskatzea aipatutako informazioa aztertzeke eta beharrezkoak diren neurriak proposatzeko, era ordenatuan, bideratuan, globalean eta premiazkoan gaur egungo egoerari aurre egiteko eta Ordiziako haurren pobrezia hazkundera saihesteko.




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

3.- Kreditua abala luzatzeko 2013ko 873 zenbakidun dekretua berrestea

Proposamena

873 DEKRETUA

HONAKOA IKUSIRIK:



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

- 2012ko abenduaren 28ko Alkatetza Dekretua, 1.200.000 euroko Kreditu Kontua berritzea onartzen zenekoa, ordaintzeko dagoen zenbatekoa da, 2013ko irailaren 15eko epemuga duena, eta Dekretu hau berresten duen 2013ko urtarrilaren 13ko osoko bilkurako akordioa.

- Ordizia Lantzen S.A.k 2013ko irailaren 15ean ezin diola Kreditu Kontu honen kitapenari aurre egin, ez dituelako jaso aurreikusi zituen diru-sarrerak, San Joan 22 HIEko (Filipinak 38 zbkia.) Babes Ofizialeko 25 Etxebizitzen, bere eranskinen eta beheko solairuko merkataritza lokalen Sustapenean saltzeko zailtasunak izan dituztelako, eta urte honetan uztailea eta abuztuan zehar burututako sustapen honetan 16 etxebizitza eta beraien eranskinak salduta lortutako diru-sarrerak, osoki, Sustatzaileak BANKOA S.A. rekin hitzartuta zeukan kreditua kitatzeko bideratu dela, BANKOA S.A.K ezarritako hipoteka banaketan ezarritakoaren arabera.

-Ordizia Lantzen S.A.ko Kontseiluak 2013ko uztailaren 22an egindako bileran erabaki zuen 1.200.000 euroko kreditu kontua berritzeko eskaera egitea "LA CAIXA"ri, 2014ko uztailaren 31ra arte."LA CAIXA"k beste baldintza batzuen artean, kontua berritzeko eskatu du Ordiziako Udalak kontu honen abala ipintzen jarraitzeko.

ONTZAT HARTZEN DUT:

*** Kreditu Kontua berritzea onartzea, eta 2012ko abenduaren 28ko Alkatetza Dekretu bidez onartutako eta 2013ko urtarrilaren 31ko osoko bilkuran berretsitako 2014ko uztailaren 31ra arteko abalaren luzapena onartzea.**

*** Dekretuaren berri ematea interesdunari.**

Igor Eguren Izagirre Alkateak agindu eta sinatu du Ordizian bi mila eta hamahiruko irailaren hamahiruan, eta nik Idazkariak, egiaztatu dut

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate in.


Dekretua irakurri du, eta adierazi du gaiak presa zuela eta, horregatik onartu zuela alkatetzaren dekretuaren bitartez Udal Osoko Bilkurak berresteko baldintzapean.

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:


4.- Kreditu transferentzien onarpena.

Proposamena

2013ko Aurrekontuaren exekuzioan behar berri batzuk sortu dira eta baita ere ikusi da hainbat partidetako kreditua ez dela beharrezkoa izango.

Beharrak eta soberakinak atal berekoak direnean Alkatearen dekretu baten bidez konpontzen dira, baina atal talde ezberdinak erabili behar direnean Udalbatza da eskumena duena.

Prestatu den espedientea 47.261,29 kreditu igoerak aurreikusten ditu eta finantziaketa egokia dauka.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)


KREDITU-TRANSFERENTZIEN .ESPEDIENTEA

KREDITU IGOERA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
ERAGIKETA ARRUNTAK		
480.313.30.01	Drogomenpekotasun preb. Garraio-gastuak	211,40
131.322.10.01	Enplegu sustapeneko kontratazioak	8.100,00
481.324.00.01	Bizilagunen Elkarteen laguntzak	300,00
221.413.30.09	Komunak garbitzeko produktuak	800,00
221.422.12.09	Urdaneta Eskolako garbiketa produktuak	800,00
224.442.20.02	Kalea garbitzeko ibilgailuen aseguruak	600,00
221.451.10.01	Kultura argindarra	2.000,00
361.611.00.01	Atzerapen interesak	430,00
		13.241,40
KAPITAL ERAGIKETAK		
622.121.00.01	Kontuhartzaitzara sartzeko baranda	856,68
626.313.99.01	Informatikako tresnak	1.276,55
623.322.10.04	Enplegua sustatzeko tresnak	239,06
626.322.10.01	Informatikako tresnak	220,00
623.433.00.04	Argiteria Publikoko tresnak	100,00
623.434.11.02	Okorroko Parkeko jolas parkea konpontzea	5.000,00
624.442.10.01	Zaborrontziak jasotzeko ibilgailua erostea	20.000,00
623.442.20.04	Kalea garbitzeko tresnak	650,00
622.451.10.04	Musikarien lokalak egokitzea	5.000,00
626.455.10.01	Informatikako tresnak	677,60
		34.019,89
	GUZTIRA	47.261,29

FINANTZIAZIOA KREDITU MURRIZKETA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
ERAGIKETA ARRUNTAK		
227.432.10.07	Hirigintzako Azterketa Teknikoak	18.100,00
201.435.00.01	Pabilioien alokairua	9.898,08
224.223.10.02	Babes Zibileko ibilgailuen alokairua	400,00
224.434.11.02	Parke eta lorategietako ibilgailuen aseguruak	200,00
		28.598,08
KAPITAL ERAGIKETAK		
626.121.00.01	Informatika tresnen erosketak	2.174,15
601.434.11.01	Parkeak eta lorategiak konpontzea	5.000,00



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

623.434.11.04	Parke eta Lorategientzako tresnak	989,06
623.442.10.04	Erreziklatzeko zaborrontziak erostea	3.500,00
624.511.00.01	Ibilgailuak erostea	7.000,00
		18.663,21

GUZTIRA		47.261,29
----------------	--	------------------

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Kontuhartzaile jn.

Adierazi du aurrekontu azterketa egin dela eta beti gertatzen den bezala, partida batzuk beharra daukatela eta beste batzuk soberakina dutela, prestatu den espedienteak 47.261,29 euroko kreditu igoerak aurreikusten ditu eta finantziazio egokia dauka. Aipagarria da gastu arruntak finantziatzen dituztela inbertsio gastuak; partida batzuk bere hasierako kreditua banatzen dituzte beste batzuen artean, hasieratik horrela aurreikusita zegoelako; eta kreditu igoerari dagokionez aipatu ditu: enplegu programa, 4 kontratazio egingo dira urte bukaerako Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin; Kulturako argindarraren azterketa eta orain jarri diren paper ontziak direla eta, zaborrontziak jasotzeko ibilgailua erostea, eta bukatzeko musika taldeentzat lokalak egokitzea: eta azkenik hauek denak finantziatzeko azpimarratu ditu murrizketa esanguratsuenak: hirigintzako azterketa teknikoak, pabilioien alokairua, eta inbertsioetatik erreziklatzeko zaborrontziak erostea, eta ibilgailua erostea; bukatu du esanez hemendik aurrera aldaketa batzuek izango badira ere, puntualagoak izango direla.


Santamaria jn.

Adierazi du bi aipamen egin nahi dituela, bata enplegu programari buruz, eskatzen du kontratazioak egin aurretik azterketa bat egitea kontratazioak zer lanak burutzeko izango diren, eta bestea, zaborontziak jasotzeko ibilgailua erosiko denez, eskatzen du atez ateko sistema ezartzeko eragindako gastu guztien zerrenda izatea.

Alkate jn.

Enplegu programaren gaiari dagokionez, erantzun dio azterketa hori eginda dagoela, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza espreski Udalaren ohiko lanetarako denez, egingo diren lau kontratazioak, batez ere, brigada lanak indartzeko izango direla, eta kontratazioak azaroaren 15erako egin behar direnez, eta gaur egungo enplegu programakoen kontratazioak abenduan amaitzen direnez, kontratazio hauekin aurten hasitako enplegu programari jarraipena emango zaiola.

Atez atekoaren gaiari dagokionez, erantzun dio prestatzen ari direla Ordiziari dagozkion datuak, Ordizian atez ateko sistema ezartzeko izandako kostu osoa kalkulatzeko, hau da akondizionamendu gastuak, bi hilabete hauetako ibilbidearen ondorioz langile eta aurreikusten diren kostu orokorrak, eta baita josotako datuekin zer aurreikuspen egiten den alde batetik Udalak ordaindu behar duena eta



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Udalak jasoko duena Gaiakako bilketagatik ; bukatu du esanez datu hauek dauden bezain laster banatuko direla.

Asenjo in:

Adierazi du gastuen kalkulua egiteko garaian, bere ustez ezin direla nahastu kaleko paperontziak jartzeko izandako gastuak, atez ateko sistema ezartzeko izandako gastuarekin, zeren eta atez ateko sistema etxeko zaborraren arazoa konpontzeko ezarri da eta kaleko paperontzian sistema kaleko zaborraren arazoa konpontzeko da, beraz bere ustez bi gauza desberdinak dira.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- Urdaneta kalea 8 lursail bat Udalari lagapenaren onarpena.

Proposamena


Urdaneta-8 kaleko eraikina egin ondoren, lursailaren iparraldean 110 m²ko lursaila geratu zela soberan, eta sustatzaileak lursail hau udalari lagatzeko asmoa agertu diola.

Hirigintza eta Obra Nagusia delegazioaren, 2013-01-28ko bileran aldeko irizpenarekin, honako hau proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Urdaneta kalea 8ko jabetza pribatuko iparraldean dagoen 110 m².ko lursaila doan laga dadin onartzea.

2.- Eskritura publikoak formalizatzeko prozedura eta Erregistroko gastuak, edo lagapenak lekarkeen beste edozein gastu Ordiziako Udalak ordainduko ditu.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

3.- Alkateari ahalmena eman behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Adierazi du Urdaneta-8 kaleko eraikina egin ondoren, hirigintza obligazioak betetzeko, lursailaren iparraldean dagoen 110 m²ko lursaila lagatuko zaiola Udalari.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Eskaerak eta galderak

Ez dago.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.